



2022/2023 denboraldia

15. ZIRKULARRA

GORENGO JUBENILEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Gorengo Jubenilen liga txapelketa honela antolatu du:

1.KLUB PARTAIDEAK

GRUPO 1 TALDEA

- 1 BEHOBIA C.D.
- 2 REAL UNION CLUB SAD "B"
- 3 GURE TXOKOA K.K.E.
- 4 SAN MARCIAL C.D. "B"
- 5 OIARTZUN K.E. "B"
- 6 ALLERRU K.E.
- 7 BETI ONA C.D.
- 8 LENGOKOAK K.E. "B"
- 9 ARRUPE CHAMINADE C.D. "B"
- 10 KOSTKAS KE "B"
- 11 INTERNACIONAL C.D. "B"
- 12 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE "B"
- 13 URNIETA K.E.
- 14 TRINTXERPE C.D.
- 15 SANTO TOMAS LIZEOA K.E.
- 16 MARIÑO C.D.

GRUPO 2 TALDEA

- 1 SORALUZE C.F.
- 2 ZESTOA K.B.
- 3 TOLOSA C.F. "C"
- 4 URKI C.D. "B"
- 5 ALOÑA MENDI K.E. "B"
- 6 IDIAZABAL K.E.
- 7 ANAITASUNA C.D. "B"
- 8 ARETXABALETA K.E. UDA "B"
- 9 ZUMAIAKO F.T.
- 10 SEGURA GOIERRI K.E.
- 11 BERGARA K.E. "B"
- 12 ELGOIBAR C.D. "B"
- 13 BILLABONA K.E.
- 14 AMAIKAK BAT K.E.
- 15 BURUMENDI F.G.
- 16 UROLA K.E.

2.LEHIAKETA SISTEMA

Gorengo Jubenilen liga txapelketa **32 taldek** osatzen dute 16 taldeko 2 multzotan banatuta. Fase bakar batean jokatuko da: puntuen bidez eta bi itzulietara (30 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek finala jokatuko dute zelai neutralean, mailako txapelduna izendatzeko.



Jubenilen Ohorezko Mailara igoko dira maila horretako beste talderen batekin mendekotasun edo filialtasun harremanik ez duten multzo bakoitzeko lehenengo bi sailkatuak. Beharrezkoa izanez gero, multzo bakoitzeko hirugarren sailkatuek 5-6 postua jokatuko dute, kanporaketa bikoitzean, zelaiaren zozketa egin ondoren, mailaz igotzeko plaza libreak egonez gero, lehenetasun ordena zehazteko.

Jubenilen 1. Mailara jaitsiko dira multzo bakoitzeko azken hiru sailkatuak (3x2 = 6).

3.IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.

4.ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.

5.DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

6.XEDAPEN OROKORRA

“Koltxoi” mailaren kontzeptua mantendu egiten da, eta beraz maila honetan egon daitezkeen plazak ondoren aipatzen den eran eta hurrenkeran beteko dira:

- a) Jubenilen 1. Mailako talde bat igota.
- b) Gorengo Jubeniletatik jaitsitako taldeen artean ondoen sailkatu denaren jaitsiera saihestuta.
- c) Eta horrela behin eta berriro.



7. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalaturik, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzeko, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2022ko iraila

**GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL**


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General